

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Israelgo agintariak denei beldur ala ezeri ez?

Blokeoz itoarazi ondoren Israelek Gazako herritarrak eraso militarrez suntsitu dituenean, munduan gero eta jende gehiagok galdetzen du ea israeldarrek zein bula daukaten dena eta edozer libre izateko. Erantzukizun politikoak eta penalak ordainaraztea eskatzen dute.

GEOPOLITIKAREN MUGAK gainditzen omen ditu arabiarren eta israeldarren arteko gatazka amaiezinak, hala idatzi du Madrilgo *El País* egunkarian nazioarteko aditu ari den M.A. Bastenier-ek. Mende batez luzatu da istilua: 1897an Suitzako Basileko sionismoaren mundu biltzarrean hasi, 1917an juduei Israelen estatua eraikitze eskubidea aitortzen zien Balfour deklarazioarekin segi, 1936an palestinarrek britainiarren eta juduen immigrazioaren kontra egindako lehen matxinadatik pasa... eta Israelgo armada Gaza bere biztanle eta guzti birrintzen ari den asteotako erasoraino iritsiz.

II. Mundu Gerraren ondoren “gerra hotzak” urte luzez iraun zuten, logika hura nolabait baliatu zuten palestinarrek eta oro har estatu arabiarrek Sobiet Batasunaren gerizpean, eta gehiago Israelek Amerikako Estatu Batuen eta Mendebaldeko Europaren babes osoa edukiz. Hala ere, gerra hotza aspaldi ahitu zen eta, aldiz, israeldarren eta arabiarren artekoa ez da goxatu. Horregatik dio Bastenierrek Israel-Palestina (edo arabiarrek) gatazka bere baitako logikak daukala sutan. Baina geopolitikak ez ote du ezer esplikatzeko?

Abenduaren 27an armada hebreoak airetik eraso zuenetik, ehunka analisiren hizpidea izan da gatazka, eta horietako askotan munduko

potentzien arteko harremanak aipatu dituzte esplikaziotzat. Israelen eraso osorik edo era kritikoa justifikatzen dutenentzako, Siriak eta batik bat Iranek mugitzen dituzte Palestinako Hamasen eta Libanoko Hezbolaren hariak –Egiptoko eta beste hainbat herrialdeetako islamiarrenak ahaztu gabe– eta nagusiki Teherango errejimena ei da eskualde hori egonkortasunik gabe atxikitze interesa duena, palestinarren sufrikarioak manipulatu.

Paul Rogers-ek, ordea, justu alderantziz planteatu ditu gauzak *Open Democracy* gunean, *Gaza: the Israel-United States connection* artikuluan. Ingalaterrako Bradforreko unibertsitatean bakeari buruzko ikasketen buru den Rogersek idatzi duenez, mundu arabiarretik ikusita “Gazan gertatzen ari dena, ikuspegi orokorretik begirata, ez da Israelen ekin-tza, AEBek eta Israelek elkarrekin daramaten operazioa baizik”.

Irudipena baino gehiago da. Rogersek berak eta beste batzuek lehendik aipatua dute 2003tik militar amerikarrek eta israeldarrek elkarrekin aztertzen dituztela Irakeko matxinoen kontrako operazioak, AEBetako armadak Bagdaden, Falujan eta bestetan erabili zezan palestinarren kontrako zampaketa *Tsabalek* Gazako eta Zisjordaniako karraketan pilotutako esperientzia.

Komunikabideek Gazarako sarbidea debekatuta daukaten arren, hango argazkirik ez da falta, zein baino zein ikaragarriago. Orriotarako hautatu dugunak (*Populist America* gunetik hartua) ez du erakusten odolik, tantarik ere, baina bai txikizioa, eta dena galdurik duintasuna atxiki duen emakumearen gogortasuna. Israeldarrek ahalegin berezia egiten dute beren militarren ekintzak zuritzeke, mundu osoan baina bereziki aliatu nagusi duen Estatu Batuetan. Hala ere, Gazaren kontrako eraso honekin muga guztiak gainditu dituztela dirudi. Nazio Batuetako berriemate bereziak esan duenez, kronika hau idazterako 1.000 palestinarren heriotza eragin duen sarraskiaren arduradunei erantzukizunak eskatu behar zaizkie. Agian oraingoan lortuko du.

Elkarlan honek badu ikurra: Israelgo Negev basamortuan eraikitako Baladia herria. Gazaren tankera handiko herria eraiki dute militar juduek, bere meskita, azoka, solairu askotako etxe, karrika estu, errefuxiatu eremu eta guzti... soldaduek ikas dezaten hiriko matxinoen kontrako gudua nola burutu.

Ipuina dirudi baina Baladia existitzen da, berme osoko adituek erakutsi dutenez. Armada amerikarrak pagatu du eta aurrerantzean gainerako militar aliatuen entrenamendurako balioko du. “Jende gutxi jabetzen dira Europan edo AEBetan Baladiak Ekialde Hurbilean zer esan nahi duen”, idatzi du Paul Rogersek.

Nazioarteko epaiketa eske

Urtarril honetan Estatu Batuen babes osoarekin eta Europar Batasunaren oniritziarekin, Israelgo agintariak bururaino eraman nahi dute “Berun Urtua” operazioa. Honen helburuez ere asko idatzi da, eta esan direnen artetik sinesgarritasun handia duten iritzik hautatzen, Sara Roy judu amerikarren analisiak merezi du.

End Game in the Gaza War?, “Azken partida Gazako gerran?” ipini du izenburu Royk. Aipatzen ditu Israel bertako kazetariak aitortutako helburuak eraso honetarako: nagusia, Gazan Hamasek daukan



tra apika historian lehenbizikoz egin den gerran, babesik gabeko jendeen kontra, gordetzeko txokorik ere ez den leku batera gerra egitera Israelgo armada bidali duten hiru politikari israeldarrei epaiketa publikoa, morala eta judiziala aplikatuko zaie. (...) Ez dut hau pozik idazten, penaturik eta ahalke baizik. Horrela jarraitzen badugu, baliteke egun batean Hagan auzitegi berezi berria antolatzea”.

Nazio Batuek Palestinarako daukaten giza eskubideen berri emale berezia Richard Falk da, judu amerikarra eta aldi berean Israelen estrategiarekiko oso kritikoa. Honela idatzi du: “Ez da ezagutu okupazio egiturarik honek bezala hamarkadatan iraun eta hain zantpatzailea izan denik. Neurriagatik, kalkulatuazateagatik, nazioarteko lege humanitarioa hausteagatik, herritarren osasunean eta bizietan duen eraginagatik, horregatik guztiagatik tipifikatu daiteke gizadiaren kontrako krimenezat. Okupazioa Israelgo agintari militarrek eta zibilek espreski nahitara egina da. Horregatik dute erantzukizuna, eta horretaz kontuak eskatu behar zaizkie”.

Gaza odolusten ari den honetan, Israelekiko boikot deiak eta nazioarteko epaiketa antolatzearen aldekoak entzuten dira nonahi. Aurrekoetan bezala saihestuko ote dituzte agintariak, ala *apartheid*eko Hegoafrikaren patua iritsi zaie? ■

www.argia.com/nethurbil.php
helbidean, gai honi buruzko informazio
gehiago eta Interneteko loturak.

legitimitatea hondatzea, azpiegiturak suntsitu eta bizimodua ezinezko bihurturik kaosa eragitea eta Hamas agintzeko ahalmenik gabe uztea. Horrekin batera, Iranen eragina ahultzea, aldi berean Hezbolah eta Iran xaxatuz, hauek erreakzionatuz gero kontraerasorako aitzakia edukitzeko.

Gazako sarraskiak kalkulu militarrez eta geopolitikoez gain, badi-tu osagai ugari, mamian nagusi den herritar palestinarren era guztietako eskubide politikoen zantpaketa ahaztu gabe. Palestinako gatazkan behin eta berriro mahairatzen dira legedi internazionalaren urraketak giza eskubideen arloan eta horiek nazioarteko justiziak zigortzeko beharra... eta inoiz zigortu ezina.

Israelgo agintariak historian zehar mila sarraski eragin dizkiete palestinarrei, munduko beste herri gehienek alderantziz haiek zigortuzinezko sentitzen direlako. Nazioarteko erakundeetan, NBE barne, aliatuek bermatzen diete Tel Avivetako buruzagiei erantzukizun politikorik ez eskatzea. Are gutxiago erantzukizun penalik. Oraingotan berdin joango al dira kontuak? Haserrea gero eta zabalduago baitago.

Berrikitan Israelgo *Haaretz* egunkarian kezkatuta idatzi du Gideon Levy-k Holandako Hagatik. “Munduak Israeli barkatzeko daukan eskuzabaltasun gehiegizkoa oraingotan hautsi liteke”, idatzi du. “Hesiz inguratutako eremu estu baten kon-



ZINKUNEGI
OPTIKA

Zerbitzua.

Zerbitzu integrala, pertsonalizatua, hurbila eta etengabea.
Horixe da gure konpromisoa.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net

